

3.2 GAIAREN LANKETA

> Lehen, egunero, orain, gero



- Egunero
 - Egun bat iruditan

Helburuak

- Egunero egiten dituzten gauzak kontatzen ikastea.
- Euren eguneroko gauzez hitz egitea.

Prozedura

- Umeei bakarka lan egingo dutela esan.
- Ume bakoitzari fitxak banatu.
- Umeei egunero egiten dituzten gauzen irudiak moztu eta B fitxan itsatsi.
- Irudi bakoitzaren azpian irudiak adierazten duena idatzi. (egunero jolas egiten dut).
- Hezitzaileak umeen lanak zuzendu eta akatsak bakoitzarekin komentatu.
- Ume bakoitzak ahoz egunero egiten duena besteei kontatu.